

ENPRESEN konfiantza

2026KO 3. HIRUHILEKORAKO
AURREIKUSPENAK


Ikerketa Departamentua – LABORAL Kutxa

2026KO 3. HIRUHILEKORAKO AURREIKUSPENAK




0 | INGURUNEA

LABORAL Kutxak Enpresen Konfiantzari buruzko Inkesta egin die Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat enpresari, 2026ko hirugarren hiruhilekorako dituzten aurreikuspenen berri izateko. Aurreko hiruhilekoaren antzeko ingurune ekonomikoa erakutsi dute emaitzek. Zehazki, enpresen % 12,6k uste du egoera hobetu egingo dela oraingo hiruhilekoaren aldean; % 47,5ek uste du bere horretan jarraituko duela, eta, beraz, % 39,9k, okerrera egingo duela.




1 FAKTURAZIOA

FAKTURAZIOAri dagokionez, 2026ko bigarren **hiruhilekoa** baino ikuspegi ezkorxeagoa dute enpresek. Zehazki, galdetutako enpresen % 30,9k uste du fakturazioa hobetu egingo dela; % 52,7ren iritziz, antzekoa izango da, eta % 16,3k okerragoa izango dela aurreikusten du.




2 JARDUERA

JARDUERAk, berriz, 2026ko hirugarren hiruhilekoan hobera egingo du % 27,5en iritziz, eta % 19,1en arabera, okerrera. Lagineko gainerako % 53,5ak, beraz, berdin jarraituko duela pentsatzen du.




3 | ESKABIDEAK

Erantzunok ikusita, zalantza hau sortzen da berehala: zer portaera izango dute salmenten kopuruek eta prezioek; hau da, fakturazioaren eta jardueraren inguruko aurreikuspenen oinarrian dauden gakoek? Ildo horretan, espero da kantitateek beherakada txiki bat izatea eta prezioek egonkor jarraitzea aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Ondorengo irudian ageri denez, inkestari erantzun dioten % 27,5en iritzian, eskabideen bolumena handitu egingo da, eta % 16,3ren ustez, txikitu. Enpresen % 56,2ren iritziz, ordea, bolumena hiruhileko honetakoaren antzekoa izango da.




4 | PREZIOAK

PREZIOei dagokienez, honela banatzen dira emaitzak: enpresen % 23,8k uste du igo egingo direla, eta % 70,8k, bere horretan jarraituko dutela.



5 | ERRENTAGARRITASUNA


Eragiketen ERRENTAGARRITASUNARI buruzko aurreikuspenei erreparatuta, erantzunen % 83,4ren arabera «txikiagoa» edo «berdina» izango da, eta enpresen % 16,6k uste du etekin handiagoa lortuko duela.



6 | INBERTSIOA


Orain arte aztertutako datuek erakusten dutenaren arabera, ikuspegia aurreko hiruhilekokoaren antzekoa da, baina badirudi inbertsioa zertxobait txikituko dela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta.

INBERTSIO-bolumenari begira, enpresen % 12,6k uste du gora egingo duela **2026ko hirugarren hiruhilekoan**. % 9,4ren iritziz, berriz, behera egingo du. Hortaz, inbertsioek berdin jarraituko dutelakoan dago galdetutakoen % 78,0.



7 | ENPLEGUA

Azkenik, enpresen % 79,7k erantzun du enpleguan ez duela aldaketarik espero; % 16,6k langile-taldea handitzeko itxaropena du, eta % 3,7k guztiz kontrakoa egitea aurreikusten du.




2026KO BESTE ADIERAZLE BATZUK



8 KONFIANTZA-INDIZEA ETA ESPORTAZIOEN BILAKAERA


Aurreko adierazleak —inguruneari buruzko iritzia izan ezik— gehitu eta haztatzen baditugu, 55,1eko konfiantza-indizea lortuko dugu. Hau da, aurreko hiruhilekoko baina txikixeagoa (58koa izan baitzen). Beraz, enpresek ikuspegi baikorra dute ekonomiaren bilakaerari buruz, 2026ko hirugarren hiruhilekoari begira. Indizearen balioa 50etik gorakoa izateak jarduera hedatzen ari dela adierazten du. Gainera, balioa handiagoa da eurogunean lortutako baina —47,5eko datua, maiatzean—, baita Estatuan lortutakoa baina ere —48,7ko datua, apirilean—.

Amaitzeko, inkestako beste gai batzuetan jasotako emaitzak aurkeztuko ditugu; ez dira aurretik azaldutako indizean sartzen. Azken urteko ESPORTAZIOen bilakaerari dagokionez, inkestatuen % 19,0k uste du hobera egin duela, eta % 19,0k txarrera egin duela. % 61,9ren iritzian, kanpoko salmentek bere horretan jarraitu dute.




9 BERRIKUNTZA EDO I+G ALORREKO EKIMENAK

Azken urtean BERRIKUNTZARA EDO I+G-KO EKIMENETARA bideraturiko salmenten ehunekoaren inguruan, inkestatuen % 63,4 balio minimoetan kokatzen da: % 0 eta % 1 artean. Bestalde, % 17,9k salmenten % 5 baino gehiago bideratzen du arlo horietara.




10 BEZEROEI KOB RATZ EKO EPEAREN BILAKAERA

Inkestari erantzun diotenen % 81,9rentzat, bezeroei KOB RATZ EKO EPEAn ez da aldaketarik egon azken urte honetan, eta, enpresen % 12,1en esanetan, epea luzatu egin da. Hala, enpresen % 5,9k soilik erantzun du kobratzeko epea laburtu egin dela.



11 | BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO ERRAZTASUNA

Amaitzeko, inkestatuen % 81,9k erantzun du BANKUEN FINANTZAKETA ESKURATZEKO aukerak berdin jarraitu duela azken urtean. Gainerako enpresei dagokienez, % 10,4k dio hobetu egin dela, eta % 7,7k lehen baino zailagoa dela finantzaketa lortzea.




ADIERAZLEAK 2026AN IZAN DUEN BILAKAERAREN LABURPEN-DIAGRAMA



12 ENPRESEN AURREIKUSPENAK

Grafiko honetan, aztertu ditugun azken 3 hiruhilekoetako aurreikuspenen adierazle partzial eta osoen balioak ikus daitezke.



Fitxa teknikoa eta metodologia

EAEko 400 enpresari egin zaie inkesta.

Landa-lerketa maiatzaren 13tik 28ra bitartean egin da.
